

SERANTES KULTUR ARETOA AUTONOMIADUN ERAKUNDEAREN ARTEZKARITZA KONTSEILUAREN SAIOAREN AKTA

2017ko MARTXOAREN 28ko SAIOA

Santurtziko udaletxearen batzorde aretoan arestian aipatutako eguneko hamaikak eta zortzi minutu direnean, Autonomiadun Erakundearen Artezkaritza Kontseiluak ohiko bilera egin du, Presidente jaunak alde zuzenetik deituta. Bileran hurrengo hauek hartu dute parte:

Kontseiluburua: Danel Bringas Egilior jn.

Bertaratutako bokalak:

Itsazain Ortolatxipi Ibáñez jn., Eusko Abertzaleak Udal Taldea

Cristina Senarriaga Rojo and., Eusko Abertzaleak Udal Taldea

Daniel Urkiaga Alberdi jn., Sí Se Puede Santurtzi Udal Taldea

Endika García Saez jn., Bildu Udal Taldea

Pedro Miguel Lucena Balda jn., Euskal Sozialistak Udal Taldea

Zuzendaria: Carlos Morán Arostegi jn.

Kontu hartzailea: José Miguel Paredes Cisneros jn.

Idazkari eskuordetua: José Fernando García Pañeda jn.

Komunikazio arduraduna: Margarita Olabarrieta Sobera

Kontseiluburu jaunak bilerari hasiera eman dio, eta deialdiaren zerrendako gaiak jorratzen hasi dira.

1. 2017ko URTARRILAREN 31ko OHIKO BILERAREN AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA .

Gai honi dagokion idazpuruan adierazitako akta alde zuzenetik helarazi denez, ez da une horretan irakurri.

Ez denez gai honekin lotutako beste parte hartzerik egon, Kontseiluburu jaunak erabakiaren bozketa egin du:

Bildu Udal Taldeko ordezkariak abstentzioa agertu du, gainerako guztiek, berriz, aldeko botoa eman dute. Horrela bada, onartu egin da 2017ko urtarrilaren 31ko ohiko saioko akta.

2º. AURREKONTUAREN 2017ko OTSAILAREN 28ra ARTEKO EGOERAREN BERRI EMATEA.

Kontseiluburu jaunak autonomiadun erakundeak aurrekontuaren 2017ko otsailaren 28ra arteko betetze-maila zein den jakinarazi du, eta

alderdi azpimarragarrienak nabarmendu ditu Artezkaritza Kontseiluko kideei aldez aurretik emandako dokumentazioarekin bat etorritz. Ez da ekarpenik izan.

Gai horrekin lotutako beste inongo parte hartzerik egon ez dela ikusita, Artezkaritza Kontseilua gaiaren jakinaren gainean geratu da.

3.- SERANTES KULTUR ARETOA AUTONOMIADUN ERAKUNDEAREN JARDUNBIDEAREN 2016. URTEKO EMAITZEN TXOSTENAREN AURKEZPENA.

Kontseiluburu jaunak Morán Arostegi jaunari eman dio hitza eta azken horrek adierazi du iaz aurreko urteetako batz besteko parte hartze maila izan duela, egin duten bost urteko ikerketak azaltzen duen bezala. Morán Arostegi jaunak adierazi du jarduerak mantentzeko joera dagoela. Zenbakiak azaltzen dutena zera da, Serantes Kultur Aretoak jende askorentzako zerbitzua burutzen duela, hots, herritar batzuen beharrak betetzen dituela.

Bestetik, Morán Arostegi jaunak adierazi du arte eszenikoetan publiko gehiago izan dela, eta horrek agian esan nahi duela arte eszenikoak lehenagotzen ari direla edo programazioarekin asmatu dela edo ikus-entzule leial gehiago dagoela. Morán Arostegi jaunak jarraitu du eta adierazi du hurrengo urteetako txostenetan ikusiko direla publikoaren gorabeherak eta argiago egongo dela hipotesia.

Euskal Sozialistak Udal Taldeko Lucena Balda jaunak hitza hartu du eta harridura azaldu du. Izan ere, ez dagoela bat ere ados esan du, ez azaltzen den konnotazio negatiboarekin, ez ERNEren prentsaurrekoa Txosten honetan azaltzearekin.

Sí Se Puede Santurtzi Udal Taldeko Urkiaga Alberdi jaunak adierazi du Lucena Balda jaunarekin ados dagoela. Ez du baloratu ERNE-k arrazoia duen ala ez, baina "tokiz kanpokoa" iruditu zaio adierazitako prentsaurrekoa Txostenean aipatzea.

Urkiaga Alberdi jaunak santurtzi.biz webgunearen administratzailea den Juan Carlos Bernal Herediarekin ezarritako Lankidetzak-hitzarmenari buruzko informazioa eskatu du.

Morán Arostegi jaunak erantzun du Serantes Kultur Aretoa, 2001ean eta itsas-prozesioaren mendeurrena zelako, argazkien bidezko memoria historikoa berreskuratuzeko lanean hasi zela eta horretarako argazkiak biltzen ibili zela.

Morán Arosegí jaunak jarraitu du eta azaldu du SKA Juan Carlos Bernalekin jarri zela harremanetan, azken horrek Santurtziko hainbat argazki bilduta zuelako. Gainera, argazki erakusketa batzuetan elkarlanean ibili da eta argazkiak biltzen jarraitzeko gogoia du. Horregatik guztiagatik, Serantes Kultur Aretoak ordaintzen du Juan Carlos Bernalen webgunearen mantenua, han aurki ditzakegulako 8.000 argazkitik gora. Hori oso positibotzat jotzen dute, SKAk ez daukalako hori burutzeko bitartekorik eta webgunearen oinordekoak izango garelako.

Eta beste parte hartzerik egon ez denez, gai zerrendaren hurrengo puntua jorratzen hasi dira.

4.- 2017KO KARMENGO JAIETARAKO PROGRAMAZIO-IRIZPIDEAK ETA GEHIENEZKO GASTUEN AURREKONTUA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.

Kontseiluburu jaunak adierazi du azken urte hauetan martxoan ekarri dela gai hau Kontseilura. Irizpideek aurreko urteetako ildo bera dute; izan ere, bere ustez, ondo dabilena ez da zertan aldatu.

Beste parte hartzerik egon ez denez, gaia bozkatu egin da.

EAJ-PNV eta Euskal Sozialistak Udal Taldeek baiezko botoa eman dute eta Sí se Puede Santurtzi Udal Taldea eta Bildu Udal Taldea, berriz, abstenitu egin dira. Hortaz, Artezkaritza Kontseiluak hurrengo hau ONARTU DU:

Lehenengoa. 2017ko Karmengo Jaietarako programazio irizpideak eta aurrekontua onartzea, hurrengo hauek hain zuzen:

1) Programak hurrengo ezaugarri nagusi hauek izango ditu:

1.1. Hamar jaiegun, ostiraletik igandera, Karmen eguna erdian dela. Zehatz-mehatz uztailaren 14an hasi eta hil bereko 23an amaituko dira.

1.2. Jai-guneak hurrengo hauek izango dira: J.J. Mendizabal enparantza, Parke Nagusia, Arrantza Portua, Reina Victoria pasealekua eta Gernika parkea. Horrez gain, Mendizabal Kapitain kalean, Txitxarran eta Mamarigan zenbait jarduera burutuko dira.

1.3. Egitarauak denontzako jarduerak bilduko ditu. Horrela bada, gustu, adin-tarte eta abar hartuko dira aintzat proposamen orekatua egon dadin.

1.4. Egitarauak balio positiboak sortu eta hizkuntza normalizazioa kontuan hartuko du eta herritarrentzat topagunea izango da.

1.5. Santurtziko jai-jardueren eskemari eutsiko zaio. Jaiei sardina egunak emango die hasiera. Egun horretan Mentxu helduko da, eta asteburuetan aniztasun handiagoa eskainiko da. Karmen egunaren ardatza prozesioa izango da eta aste barruan kuadrillentzako jarduerak eta kontzertu handiak egongo dira. Jaien amaiera Gorka sariak eta Mentxuren agurrak ekarriko dute.

1.6. Jai-gune nagusia egongo da eta bertan txosnak, barrakak eta bideo-pantaila erraldoia kokatuko dira.

2) Egitaraua hurrengo irizpide hauen arabera kudeatuko da:

2.1. Santurtziko elkarte eta kuadrilla guztiei egingo zaie dei jai-egitaraua osatzeko.

2.2. Kuadrillen jardueren egitaraua eta kudeaketa Jai Batzordeak burutuko ditu.

2.3. Laguntza teknikoa egongo da egitaraua osatu, jarduerak koordinatu, jaietan parte hartzen duten udal arloak koordinatu, aurrekontua kudeatu eta administrazio-prozesua eta jaietako segurtasuna burutze aldera udal batzak zehazten dituen irizpideak helarazi eta bermatzeko.

2.4. Jai batzordeak, elkarteak eta herritarrek arestian deskribatutako terminoetan egitaraua kudeatzeko egiten dituzten proposamenak arindu eta bideratzeko laguntza emango da, eta ofizioz osatu edo burutuko dira egindako proposamenetan aintzat hartu ez diren kontuak edo zailtasun teknikoak direla-eta Autonomiadun Erakunde honek egin beharrekoak.

3) Hona hemen jai egitaraua egiteko egutegi orokorra:

3.1. Jai batzordearen, kuadrillen eta erakundeen arteko bilerak apirilean, maiatzean eta ekainean egingo dira.

3.2. Egitaraua ekainaren bigarren astean amaituko da.

3.3. Karmengo Jaiak iragartzeko kartel-lehiaketaren erabakia ekainaren 16an emango da jakitera.

3.4. Jai egitaraua ekainaren hirugarren astean aurkeztuko da.

3.5. Jaiak uztailaren 14an hasiko dira.

4) **Gastuen gehienezko aurrekontua**

Jai-egitaraua burutzeko aurrekontu egokia izan behar da, eta iaz bezala gastuen gehienezko aurrekontua, zeinek 446.500 euro duen, hurrengo kontzeptu orokor hauen arabera banatuko da:

Programatutako jardueren kontratazio gastuak	320.000 €
Azpiegitura-gastuak	120.000 €
Diru-laguntzetarako gastuak	6.500 €

Bigarrena. Serantes Kultur Aretoari eskuordetzea behin betiko egitaraua egin eta onartzeko ardura, bai eta horrekin lotutako kontratu eta gastuak onartzekoa ere.

4. KONTSEILUBURUAREN GAIAK

Kontseiluburu jaunak jakinarazi du laster Kornites eguna ospatuko dela, apirilaren 17an. Bestetik, azaldu du San Jorge jaiak, beti bezala, bi asteburutan ospatuko direla: lehenengoa, Serantes Kultur Aretoak antolatuko du eta bigarrena Txosnaguneak, ostalariek eta Santurtzi Gastronomiak. Dena den, bigarren asteburu horretan SKAk antola lezake jardueraren bat, hala nola IV. Kontzertu Lirikoa.

Kontseiluburu jaunak adierazi du egitaraua prentsan aurkeztu aurretik helaraziko zaiela Kontseiluko kideei.

Euskal Sozialistak Udal Taldeko Lucena Balda jaunak erantzun du ziur aski prentsari aurkeztu baino ordu bete lehenago helaraziko dietela, egin ohi dutenez. Hala ere, Kornitesen ospakizunaren harira galdetu du zaldiek ere erromerian parte hartzea nolabait arautuko duten. Izan ere, iaz jakinarazi zen Mazo inguruan geratzen ziren zaldiek umeeekin zihoazenak beldurtzen zituztela.

Morán Arostegi jaunak erantzun du zaila dela zaldien parte hartzea kontrolatzea, ez dagoelako arautzen duen ordenantza edo Alkatearen Dekreturik. Hala ere, Morán Arostegi jaunak adierazi du zaldiak egoteko

guneren bat egokitzen saiatuko direla eta horrela, puzgarrien inguruko guneetan, kontrolatuago egongo direla.

5. GALDE-ESKEAK

Urkiaga Alberdi jaunak galdetu du Kulturguneko gairako ordainketa-funtsa sortuko den. Kontseiluburu jaunak erantzun dio Kulturgunea Kultura Batzordearen eskumena dela.

Beste gairik egon ez denez, Kontseiluburu jaunak batzarra amaitutzat eman du akta honen hasieran zehaztutako egunean, goizeko hamaikak eta hogeita minutu direnean. Eta nik, idazkari eskuorde naizen honek, hau guztiau ZIURTATU egiten dut.